



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN
2023KO URTARRILAREN 17KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ETA
HEZKUNTZAKO IKUSKATZAILEEN ZERBITZUAN DAUDEN
IKUSKATZAILEEN KIDEGOETAKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN
ARTEKO ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN
ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA
ARGITARA EMATEN DUENA**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak hamalagarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14a),

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren II eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Interesatuek gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a